**43/2012 EBAZPENA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ ARGITARATZEN DA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA LANPOSTUA (OSASUN PUBLIKOKO PROGRAMETAKO ETA PAZIENTEAREN SEGURTASUNEKO KOORDINATZAILEA) LEHIAKETA SISTEMAREN BIDEZ HORNITZEKO DEIALDIA.**

**Lanpostua**: Zerbitzu Sanitarioko Burua (Osasun Publikoko Programetako eta Pazientearen Segurtasuneko koordinatzailea )

**Lantokia**: Erakunde Zentrala (Vitoria-Gasteiz)

**Betekizunak**: (Agirien bidez egiaztatu beharko dira).
1.- Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan estatutario, funtzionario edo lan-kontratuko langile finko moduan plaza A1 Talde Profesionalean jabetzan izatea, edo Estatuko Osasun Sistemaren Erakunde Sanitarioetan estatutario finko moduan.
2.- Medikuntzan lizentziatua izatea.
3.- A1 Talde Profesionalean 4 urteko lan-esperientzia.

**Baloratuko diren merituak**: (Dokumentuen bidez egiaztatu beharko dira)
1.- Osasun Publikoko Programak eta/edo pazientearen segurtasuna kudeatzen esperientzia espezifikoa izatea.
2.- Eskumen-arloari lotutako Espezialitate Medikoa izatea.
3.- Osasun Publikoari aplikatutako Epidemiologiako Masterra izatea.
4.- Osasun eta Kontsumo Saileko eta Osakidetzako egitura funtzionala ezagutzea.
5.- Frantsesez eta/edo ingelesez jakitea.
6.- Osasun Publikoa eta Pazientearen Segurtasuna kudeatzeari buruzko Memoria-proiektua.
7.- Interesgarritzat jotzen diren merituak aurkez daitezke, lanpostua betetzeari balioa eransten badiote.
8.- Euskararen ezagutza-maila: 2. HE,.

**Baremoa:**
* Proiektua eta haren defentsa......................Gehienez 40 puntu
* Esperientzia kudeaketan ..........................Gehienez 20 puntu
* Curriculum vitae..................................Gehienez 30 puntu
* Euskera.......................................... Gehienez 10 puntu

**Eskabideak aurkeztea eta epea**:
Interesdunek eskabideko datu pertsonal guztiak bete eta *curriculum vitae* dokumentatuarekin (aplikazio informatikoan beteta dutenek izan ezik) eta memoria-proiektuarekin batera bidali beharko dute Osakidetzako Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara (Araba kalea, 45). Aurkezteko epea: **2012ko otsailaren 15etik 25era, biak barne.**

**Epaimahaia**:
Epaimahaia honela osatuko da: Asistentzia Sanitarioko zuzendaria (epaimahaiburua), Asistentzia Sanitarioko Zuzendariordea, Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko zuzendariordea (idazkari jardungo duena) eta bi mahaikide.

**Hautatzeko prozedura**:
Epaimahaiak interesdunek garaiz eta behar bezala aurkezten duten dokumentazioa baloratuko du eta, egoki iritziz gero, izangaiei deitu ahal izango lieke proiektuaren defentsa egiteko. Hori egindakoan, eta kontuan hartuta, proposamena egingo da dagokion izendapena gauzatzeko. Epaimahaiak plaza hutsik utzi ahal izango du izangaiek ez badituzte eskatutako baldintzak betetzen.

**RESOLUCIÓN Nº 43/2012, DEL DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA POR LA QUE SE HACE PÚBLICA LA CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN MEDIANTE EL SISTEMA DE CONCURSO DEL PUESTO DE JEFE DE SERVICIO SANITARIO (COORDINADOR/A DE PROGRAMAS DE SALUD PÚBLICA Y SEGURIDAD DEL PACIENTE) DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.**

**Puesto**: Jefe de Servicio Sanitario (Coordinador/a de Programas de Salud Pública y Seguridad del Paciente)

**Localización**: Organización Central (Vitoria-Gasteiz)

**Requisitos**: (Se deberán acreditar documentalmente)
1º.- Tener plaza en propiedad en el Grupo Profesional A1, como personal estatutario, funcionario o laboral fijo, en cualquier organización de servicios de Osakidetza-Svs, o como personal estatutario fijo de las Instituciones Sanitarias del Sistema Nacional de Salud.
2º.- Estar en posesión de la Licenciatura en Medicina.
3º.- Experiencia profesional de 4 años en el Grupo Profesional A1.

**Méritos a valorar**: ( Se deberán acreditar documentalmente)
1º.- Experiencia específica en gestión de programas de salud pública y/o seguridad del paciente.
2º.- Estar en posesión de Especialidad Médica afín al ámbito de competencia.
3º.- Estar en posesión de Master en Epidemiología aplicada a la Salud Pública
4º.- Conocimiento de la estructura funcional del Departamento de Sanidad y Consumo, y de Osakidetza.
5º.- Conocimiento de idioma francés y/o inglés.
6º.- Memoria-proyecto de gestión de Salud Pública y Seguridad del Paciente.
7º.- Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño del puesto de trabajo.
8º.-Conocimiento de Euskera: PL 2

**Baremo:**
* Proyecto y su defensa.........................Máximo 40 puntos
* Experiencia en gestión.........................Máximo 20 puntos
* Curriculum vitae.............................. Máximo 30 puntos
* Euskera.......................................Máximo 10 puntos

**Presentación de Solicitudes y Plazo**:
Los/as interesados/as deberán dirigir su solicitud cumplimentada con todos sus datos personales y acompañada de "Curriculum Vitae" documentado (salvo quienes lo tengan cumplimentado en la aplicación informática) acompañada de la memoria-proyecto a la Dirección de Recursos Humanos de la Organización Central de Osakidetza (c/ Alava nº 45 ) El plazo de presentación será **desde el día 15 al 25 de febrero de 2012, ambos inclusive.**

**Tribunal**:
Se constituirá un tribunal presidido por el Director de Asistencia Sanitaria, e integrado por el Subdirector de Asistencia Sanitaria, la Subdirectora de Gestión, Organización y Desarrollo de RR.HH (quien actuará como secretaria) y dos vocales.

**Procedimiento de selección**:
El tribunal valorará la documentación presentada en tiempo y forma por los interesados, pudiendo convocar para la defensa del proyecto a aquellos candidatos que estime oportuno. Efectuada esta, y a la vista de la misma se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. El tribunal podrá declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

Osakidetza

**Ebazpenaren aurkako errekurtsoak**:
Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean argitaratzen den biharamunetik hasita.

**Recursos contra la resolución**:
Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

**Vitoria-Gasteizen, 2012ko otsailaren 13an**
En Vitoria-Gasteiz, a 13 de febrero de 2012
Iz. /Fdo.:

Osakidetza
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZA
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

Tomás Mendoza Carnicero
**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA**
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA

**IRAGARKI HAU ZENTRO GUZTIETAKO IRAGARKI-TAULETAN JARRIKO DA 2012KO OTSAILAREN 14AN**
**PARA SU PUBLICACIÓN EN LOS TABLONES DE ANUNCIOS DE TODOS LOS CENTROS EL DÍA 14 DE FEBRERO DE 2012**